

Karlatz taldea, onenekin

Europako Dardo Txapelketa jokatu dute Alemanian, eta emaitza bikainekin itzuli dira ▶ 6



Harpidedunei banatua ▶ Osteguna ▶ 2005-10-20 ▶ III. urtea ▶ 715. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

FERNANDO 'SAPO' ▶ KURAIA TALDEKO ABESLARIA

«Bonberenean jotzea bereziki gustatzen zaigu»

TOLOSA ▶ Etzi eskainiko du zuzeneko Kuraia taldeak Bonberenean

GIROA ▶ Bertan sortzen den giroa eta biltzen den entzulegoa «gogoko» dute ▶ 2



Margolanetako bat. I. GARCIA

LARRAUL ▶

‘Zen’ pintura teknikaz egindako marrazkiak ikusgai

Laura San Juan margolariak bere lanak jarri ditu Herri Ostatuan ▶ 4



M. SAN SEBASTIAN

Urratsez urrats, ESAITek hamar urte

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶ Erronkez mintzatu da Mikel Uzkudun kidea; Euskal Selekzioaren aldeko sinadura bilketa martxan da ▶ 5

VILLABONA ▶

Eskolarteko Mendi Lehiaketaren Finalista Eguna, igandean

Bi mila haur eta heldu inguru espero dituzte Aizkardi Mendi Elkartekoek ▶ 4

TOLOSA ▶

Amarozko dantza taldearen ikastaroa

Gaur hasiko da; izen-ematea zabalik da ▶ 3

LEITZA ▶

Zerga bereziak ordaintzeko epea Kooperatibakoentzat

Saneamendu lanak bukatu dituzte, eta zolaketarekin ari dira orain ▶ 7

FERNANDO SAPO ▶ KURAIA TALDEKO ABESLARIA

«Bonberenean jotzea bereziki gustatzen zaigu, duen giroagatik»

‘Piztu da piztia’ disko «punk-rockeroa» besapean, hirugarren aldiz egingo du bisita Kuraia Bonberenean, «ilusioz»

NOELIA LATABURU

Piztu da piztia. Izenburu hau duen diskoa aurkeztuko du etzi, larunbata, Kuraia musika taldeak, Bonberenean, 22:30-etik aurrera. «Gogotsu» azaldu dira musikariak, «gogoko» baitute publiko tolosarra. 7 abesti berri aurkeztuko dituzte lau taldekideek, Joseba kitarrajoleak, Mikel baxujoleak, Fernando abeslariak eta Galder bateirajoleak; kontzertuaren eta beren proiektuen gainean jardun du HITzarekin Fernando Sapo abeslariak.

Bonbereneako eszenatokia errepikatzen duzue beste behin ere.

Bai, hala da, hirugarren aldia dugu honakoa. Gogo izugarriekin gatoz, izan ere, asko gustatzen zaigu Bonberenean berak ordezkatzeko duen guztia, bertako jendea, bai eta nola hartzen gaituen publikoak; giro bikaina sortzen da bertan.

Kontzertu gehiago ez eskaintzeko erabakia hartu zenutela zabaldu zen, baina badirudi ez dela horrela izan.

Urtebete egon ginen kontzerturik eman gabe. Jotzen jarraitzea proposatu genuen, baina kontzerturik eman gabe. Baina argitaratu berri dugun diskoaren ostean, berriz ere zuzenean jotzeari ekin diogu, bira handirik gabe. Zurrumurruak segituan sortzen dira, baina

lau partaideak gustura gaude gure lanarekin, eta hori da guretzat balio duena.

Zaragozar bat euskaraz abesten... Ez da ohikoa horrelakorik topatzea.

Duela lau urte etorri nintzen Euskal Herrira bizitzera, eta ordutik Irungo euskaltegira joaten naiz euskara ikastera. Nire berezko hizkuntza ez dela aintzat hartuz, zaila egiten zait, baina betidanik nuen buruan euskara ikastearen ideia. Lehenago Corazon de Sapo Zaragozako taldean aritzen nintzen, eta hona etortzerakoan oso berezia zen; hortik sortu zitzaizkan hizkuntza honekiko grina berezia.

Zuen azken diskak, ‘Piztu da piztia’, nolako harrera izan du?

Dagoeneko eman ditugu hainbat kontzertu Euskal Herrian zein kanpoan, eta jendeak ondo hartu gaitu, pozik gaude. **Zein estilo landu duzue?**

Aurrekoa baino rockeroagoa da, punk-rockarekin. *Iluntasunari barre* diskoa ilunagoa zen, doinu krudelagoekin. Oraingon, alaitasuna nagusitu da, koloretsuagoa da. Horren irudi da, besteak beste, karatula ere. **Zer transmititu nahi duzue, bada, zuen musikarekin?**

Amorrua, aurreko diskoetan bezalaxe. Halaber, gazte jendea animatu nahi dugu egungo gizartearekin inkorformista



HITZA

izan dadin, borrokatzeko mezu zabaldu nahi dugu, eta arazoan aurrean intsumisoak izan daitezkeen.

Euskal Herritik kanpo ere eskaintzen dituzue kontzertuak. Nola artatzen zaituztete?

Harrigarria da nola hartzen gaituzten atzerrian. Izan ere, talde euskalduna eta txikia izaki, askotan zaila da harrera ona izatea. Zirraragarria izaten da benetan. Madrilan, Galizian, Suizan eta Italian jo izan dugu, eta datozen kontzertuen barnean, Zaragozako kontzertu antifaxista batean eta Katalunian, berriz, okupazioaren al-

deko batean ariko gara, besteak beste.

Nola sortu zen Kuraia proiektua?

Duela lau urte, Joseba kitarrajoleak, Dut taldean aritu zena, abesti batzuk proposatu zitzaizkan, non bertan nire ahotsa jartzea nahi zuen. Dena erdi txantxetan hasi zen. Abesti hauekin maketa bat egin genuen, ondoren Galder eta Mikel batu ziren taldera, eta hemen-dik aurrerakoak diskoa eta kontzertuak izan ziren.

Etorkizunerako proiekturik?

Ez zaigu gustatzen urrutira begiratzea, oraingoz atera berri

dugun diskoaren promozioa egiten jarraituko dugu. Bonbereneako kontzertuaren ostean etenalditxo egingo dugu, eta azaroan ekingo diogu berriro lanari. Epe laburrera bizi dugu gure lana.

Ezagutzen ez zaituztenentzat, nola erakarriko zenituzke zuen kontzertura?

Balitzko bi arrazoi topatzen ditut; batetik, Bonberenea ezagutzen ez dutenentzat, leku ikargarria baita. Bestetik, gu eza-gutzeko, gure musikak asko transmititzen duelako, eta gure indar guztiak jartzen ditugulako kontzertu bakoitzean.

V. Skate festa Bonberenean, etzi

Kuraia taldeak borobilduko du etzi V. Skate festa Bonberenean. Baina ez da hau izango ekitaldi bakarra egun honetan. Izan ere, Skate Parkea jai gune bilakatuko da arratsaldeko lehen orduetan. Egitaraua ondokoa izango da: 15:00etan, grafiti erakustaldia izango da Bonberenean; 16:30ean, berriz, Bonberenea V. Skate Txapelketa Skate Parkean. Djen musikak alaitaurik. Amaitzeko, 22:30ean, Kuraia kontzertua izango da, 5 euroren truke.

Bihar ere izango da zer go-



Iragarpen kartela. HITZA

zaturia Bonbereneako taula gainean; izan ere, 22:30etik aurrera, bi musika taldeek emanaldi eskainiko dute, asteburua berotzen joateko. Señor No eta Electric Riders izango dira, hurrenez hurren, gaueko protagonistak.

Bonbereneakoek gogor eutsi diote ohiko kontzertu agenda eta beste ekitaldi guztiei, Tolosa bizirik irauteko. Jada laister beteko ditu Bonbereneak sei urte, eta urtemuga hau beti bezain biziki ospatu nahi dute. ▶

hilberriak ▶



Joxepa Jauregi Tolosa
(Herenegun hil zen Ugarten, 61 urterekin)

Ugarte auzoko zure lagunek beti gogoan izango zaitugu, eta bat egiten dugu zure senar Simon eta seme-alaben saminarekin.

UGARTEN, 2005eko urriak 20



Josefa Jauregi Tolosa

andrea

Herenegun hil zen, 61 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian bego—

Bere bilobak: Julen, Oier, Mikel, Aitor eta Xabier.

Amona, zerutik maitasunaz begira iguzu eta erakutsi diguzun bidea jarraitzen lagun iguzu.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitetzela GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, UGARTEKO ERROSARIOKO AMA parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

helbidea ▶ Josean Tolosa kalea, 15
oharra ▶ gorpua beilegian dago

UGARTE AUZOAN (AMEZKETA),
2005eko urriaren 20an



DANTZA ▶

Amarozko taldean parte hartu nahi?

Euskal dantza ikastaroa antolatu dute; edonork eman dezake izena bertan

IRATXE ETXEBESTE

«Udazkenean sartu gara, eta Amarozko dantza taldeak, azken urteotan egiten duen bezalaxe, euskal dantza ikastaroa antolatu du ikasi nahi duen edonorentzat. Beraz, gonbita luzatzen diegu herritar guztiei euskal dantzak ikasteko ikastaroan parte hartzera». Gisa horretara egin dute Amarozko

dantza taldeko kideek taldean sartzeko deia.

«Zahar edo gazte, ez dio axola. Gogo pixka bat edukitzea besterik ez da behar horretarako», adierazi dute taldeko ordezkariak. Ildo beretik, sekula dantzan aritu ez direnei «bel-durrik ez izateko» esan diete, guztiek ikasiko dutela uste dutelako. «Aurretik ibilitakoa bazara, berriz, hemen duzu auke-



Amarozkoak ekitaldi batean. HITZA

ra paregabea berriz ere gorpuzta astintzeko».

Amarozko dantza taldean parte hartu nahi dutenei konpromiso bakarra eskatzen diete: jakinarazi dute, bestalde, bertako kideek: astero izaten den ordubeteko saioan parte hartzea. Ostegunetan izaten

HASIERA

Gaur izango da, auzo lokalean, 20:30ean, lehendabiziko eskola eguna; deialdi irekia egin dute kideek

dira saioak Amarozko auzo elkarte lokalean, Amaro zatearen gainean, 20:30ean. Eta, hain zuzen ere, gaur izango da lehendabiziko klase eguna ordu horretan.

«Jendea gonbidatzen ari garen honetan, dei berezia egin nahi diegu gionezkoiei. Ez dakigu zergatik, baina gisa honek ekimenetan euren partaidetza nahiko eskasa izaten da. Ea Amarozen bestelakorik erakusteko gauza garen», azaldu dute dantza taldekoak.

Argibide gehiago nahi dituenak 943 117 662 telefono zenbakira dei dezake.

HEZKUNTZA ▶

Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko

Proba libreak antolatu ditu EPA-HHIk; hilaren 24tik azaroaren 18ra eman daiteke izena

I. ETXEBESTE

Tolosaldeko EPA-HHIk jakitera eman duenez, Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko proba libreak prest dira. Azterketa egunean 18 urte beteta izatea, irakaskuntza ofizialean matrikultatua ez egotea eta EAEn bizitzea dira proba libreetan parte hartzeko baldintzak. Azterketa abenduaren 13an izango da, eta izena hilaren 24tik azaroaren 18ra eman daiteke. Informazio gehiago nahi dutenek Igaralde kaleko 23ra jo beharko dute, edo 943 67 26 00 telefono zenbakira deitu.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaro zko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aitzondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ lurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

GIZARTEA ▶

Azaroko ikastaroak prest dira KZgunean

Tolosako KZguneko ardura-dunek jakitera eman duteenez, prest dira honezko azaroko ikastaroak. Hilero moduan, goizez eta arratsalde izango dira 20 orduko Interneteko eskolak Pablo Gorosabel kaleko 34 bis zenbakiko egoitzan. Izena eman nahi dutenek 943 65 37 20 telefono zenbakira deitu beharko dute; informazio osagarria lortzeko ere bai.

GASTRONOMIA ▶

Babarrunaren 2005eko lehen uztaren jasotzea

Tolosako babarrunaren 2005eko lehen uztaren jasotzea egingo dute gaur Santa Luzia auzoko Santa Lutzia Berri baserriko lurretan. 11:00etan hasiko da ekitaldia, eta, besteak beste, parte hartuko dute, Samaniego ikastetxeko 4. mailako ikasleekin batera, alkateak, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak, Kofradiako kideak eta herriko ostalariek.

KULTURA ▶

Gorritiren lanak biltzen dituzten diskoak salgai

Pasa den astean Kultur Etxean Felipe Gorritiren lanekin Esteban Elizondok egindako bi disko aurkeztu zituzten, eta Antonio Maria Labaien kultur etxean dira salgai honezko; bi diskoak 6 eurotan eskura daitezke. Felipe Gorritik Tafallan eta Tolosan organojole gisa aritu zenean sortutako obra erlijiosoak biltzen dituzte bi disko horiek.

KULTUR ASTEA ▶

III. Patata Tortila Lehiaketa eta antzerkia gaur

Ttonttor San Esteban Auzokide Kultur Elkartek joan den asteazkenean abian jarritako XVIII. Kultur Asteak aurrera darrai, eta gaurkoan hainbat ekitaldi izango dira: III. Patata Tortila Lehiaketa izango da 19:00etatik aurrera, eta ondoren lunch-a egingo dute. 22:30ean, berriz, Tearto Teatro taldeak *El fin es así* antzezlan eskainiko du auzoko lokalean.

AHT ▶

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak Bilboko manifestaziorako deia egin du

Larunbatean izango da, eta autobusak antolatu ditu herritarrentzat

I. ETXEBESTE

Urriaren 13tik 21era hainbat erakunde, gizarte mugimendu eta herri kaltetuetako bizilagunak Lakua aurrean burutzen ari diren akanpadari amaiera emateko larunbatean Bilbon izango den manifestaziora joateko gonbita luzatu du AHT Gelditu! Elkarlanak. Ildo horretatik, gauza bera egin du Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak ere. Eta eskualdeko herri-

tarrei larunbatean Bilbora joatea errazteko, autobusak antolatu ditu.

Tolosako Triangulo plazatik irtengo da autobusa 15:30ean, eta autobus hori hartu nahi dutenek izena eman beharko dute aldeaz aurretik. Hain zuzen ere, eskualdeko hainbat herritar jarri dituzte Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlaneko kideak autobuserako izena emateko zerrendak: Tolosako Raku eta Mescal tabernetan, Alegia-

ko Iskiña tabernan, Villabona-ko Iratzar tabernan eta Anoeta-ko Itzuli tabernan izango dira larunbata bitarte, eta zerbitzu hori erabili nahi dutenek 7 euro ordaindu beharko dute.

Eusko Jaurilaritza: AHT gelditu! Inposaketarik ez! lelopean, 17:30ean abiatuko da manifestazioa larunbatean Bilboko Jesusen Bihotza plazatik. Hiriko erdiguneko kaleak zeharkatu ostean, udaletxera helduko da protesta ekintza.

GIZARTEA ▶

Aiako Harrietara joango dira Irazkikoak

I. ETXEBESTE

Tolosaldeko Irazki elkarte kulturantzak artea antolatu du igandean Aiako Harrietara joateko. Ekimenen parte hartu nahi duten denek izena eman beharko dute aldeaz aurretik, eta 678 63 83 94 telefono zenbakira deitu beharko dute horretarako. Igandean, 10:30ean abiatuko dira izena ematen duten guztiak mendi aldera, Santa Klara paretik.

VILLABONA ▶ MENDIA

Mendizaletasunari saria

Finalisten Eguna egingo dute herriko mendietan igandean; bi mila haur eta heldu espero dituzte antolatzaileek

IMANOL GARCIA

Eskolarteko XVIII. Mendi Lehiaketaren Finalista Eguna egingo dute igandean Villabona. Aizkardi Mendi Elkarteari egokitu zaizkio antolaketak, eta 50 bat lagun ariko dira lanean. Gipuzkoako Mendizale Federazioak urtean zehar antolatzen dituen ibilaldietan parte hartzen dutenei diploma banatzen diete Finalisten Egunean. Probintziko ikastetxeetako neska-mutil guztiek har dezakete parte bertan. Aurreko urtean 1.200 haurrek eta 900 helduk hartu zuten parte, eta Aizkardiok horrenbeste espero dute aurtengorako. Giro berezia izango da, beraz, Villabona inguruko mendietan.

Errebote plazan izango dute hitzordua parte-hartzaileek, 09:00etan. Bertara joateko antolatzaileek garraio publikoa erabiltzea gomendatzen dute, trena edo autobusa, autoak aparkatzeko arazoak izan baitaitezke. Ibilaldiari ekin aurretik harrera mahaietan parte-hartzea baieztatu beharko da.

Ibilbide ezberdina izango dute gaztetxoek eta gurasoek. Neska-mutilak 9 kilometro inguru egin beharko dituzte, eta

helduek 12 kilometro. Leku berdinetik hasiko dira, esan bezala, Errebote plazatik. Ondoren, Arratzain, Borda eta Lastur-etik pasako dira. Mendabietara iritsitakoan bananduko dira bi ibilbideak. Gurasoek Kanaletako bidea egitera joko dute, eta gaztetxoak Komizar atsedenera aldera joango dira. Araudiak dioenez, gurasoak ezin izango dira umeekin joan elkarrengandik banantzeko jarri den bidegurutzetik aurrera. Ibilaldi bukaeran elkartuko dira.

Masifikazioa ez gertatzeko eta eskola-umeen ibilera ez oztopatzeko, eskola talde bakoitzean 10 ume arduradun bat joango da. Hortik gorako kopururik ez dela onartuko zehazten dute arauak, eta arduradunek bere taldea elkartuta eraman beharko dutela gaineratu dute.

Bi ordu eta erdi

Komizarren egingo dute hamaiketako. Parte-hartzaile bakoitzak bere eraman beharko du, bai jana eta baita edaria ere. Hamaiketakoan emango den ordu erdia barne dela, gaztetxoek ibilbidea guztira bi



Komizar atsedenera egingo dute hamaiketako Finalisten Egunean parte hartzen dutenek. IMANOL GARCIA

ordu eta erdi ingurukoa izango da.

Behin mendi martxa amaituta, sarien banaketa egingo dute. Finalisten diplomak eta etxe laguntzaileek emandako opariak parte hartu duten ikastetxeen artean banatu eta zozketatuko dituzte.

Antolatzaileek ohar orokor batzuk ezarri dituzte araudian. Alde batetik, mendia zaintzeari buruzkoa: «Mendia denon go-

zamenerako inguru paregabea da. Mesedez, zain dezagun paper, lata eta antzeko hondakinez zikindu gabe. Horrelakoak, nork bere motxilara bildu eta etxeratu behar ditu». Ibilbideko seinaleak errespetatzea «derrigorrezkoa» dela azaldu dute. «Errespetatzen ez dituen ibiltarien ikastetxea ibilaldirik kanpo geldituko da», zehaztu dute. Ezustekoren bat gertatuz gero, antolatzaileen esku egon-

go da kasu horretan zer egin erabakitzea.

Oraindik izena eman ez dutenek gaur dute horretarako azken eguna. Aizkardi Mendi Elkartera bidali behar da izen-emate buletina, edo 943 69 44 58 telefonora deitu, edo posta elektronikoz gazte.vill@udal.gipuzkoa.net helbidera. Epe barruan izena ematen ez duen ikastetxea opariaren zozketatik kanpo geldituko da.

LARRAUL ▶ ERAKUSKETA

‘Zen’ pinturaren berezia

Laura San Juanen erakusketa Herriko Ostatuan hilaren bukaera arte

I. GARCIA

Laura San Juan margolariak zen pinturen erakusketa jarri du ikusgai Larraulgo Herri Ostatuan, hilaren bukaera arte. Marratzeko teknika berezi horren ikastaro bat egin ondoren, bere lehen margolanak egin eta dagoeneko ikastaroak ematen ari da. «Eskaera handia dago, asko interesatzen zaio eta jendeari», dio Laura San Juanek. «Antzinako maisuen lanak kopiatzen ikasten da. Hortik jo behar du hasiberriak».

Teknikaren berezitasuna nabarmentzen du margolari do-nostiarrak: «Arnasa kontuan



Erakusketan ikusi daitezkeen bi margolan. I. GARCIA

izan behar duzu, eta baita gorputzaren egoera ere. Oso motel egiten da marrazkia, arnasarekin bat egin behar delako. Tra-

dua oso garrantzitsua da pintura mota honetan, margolariaren barne egoera azalarazten duelako».

OSTALARITZA GIDA 2006

Tolosaldeko eta Goierriko:

- Jatetxeak
- Erretegiak
- Pintxo tabernak
- Sagardotegiak

Jarri zure iragarkia ostalaritza gidan

17.000 aleko banaketa zabala

Iragarkia kontratatzeko:
943 304 333
publi@iragarri.net

Goierri **hitza**

EUSKAL SELEKZIOA ▶

Urratsez urrats

10 urte bete dira ESAIT sortu zenetik eta Mikel Uzkudun kidea lortutako helburuen inguruan mintzatu da; abenduaren 23ko jairako deialdia luzatu du



Baikor eta gogotsu ageri da Mikel Uzkun ESAITeko kidea aro berri honen aurrean. MARTA SAN SEBASTIAN

MARTA SAN SEBASTIAN

Garai bat bukatu dela eta beste garai berri batean sartu dela ESAIT (Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldea) dio Mikel Uzkudunek. Bera, bizpahiru kiderekin batera, eskualdean ESAITeko koordinazio lanetan dihardu. Abenduaren 23rako aldarrikapen ekitaldi jaia prestatzen ari da ESAIT, eta sinadura bilketa kanpaina dagoeneko hasi dute. Gogotsu eta dioenarekin sinetsita mintzatzen da Uzkudun.

«Duela hamar urte sortu zen ESAIT, 1995an, eta gaur arte hainbat helburu lortu ditugu», dio. Helburuak epe motzean bete dituzte; hala nola, ESAITek gizarte mailan nortasuna izatea eta federazioen artean babesa lortzea. Helburu hori lortu dela dio. Azken helburua «Euskal Herriko Kirol Selekzio Nazionalak nazioarte mailan ofizialak izatea da». Xede hori lortzeko oraindik denbora falta dela uste du, bat batean ezin delako lortu. Hala ere, hainbat urrats garrantzitsu eman dira dagoeneko. Uzkudunen hitzetan, «lurra lehenengo landu egin behar da, ondoren erein, eta gero lortuko ditugu emaitzak».

2003an ESAITek inkesta bat egin zuen kirol federazioen iritzia ezagutzeko euskal selekzio ofizialaren inguruan. Emaitzak izugarriak izan ziren: %90etik gora jarrera sutsua

Sinadura bilketa abian

1995. urtean sortu zen ESAIT, eta ordutik Euskal Selekzioaren aldeko iritzia lortzea izan du helburu. Beraz, aurtun 10 urte bete dira taldearen sorreratik, eta ekitaldi berezia prestatu dute abenduaren 23rako. Egun hori bitarte, sinadura bilketa kanpaina hasi dute Euskal Herri osoan. Deialdia Tolosaldean ere luzatuko dute.

10 urte hauek aro bat osatu dutelakoan daude ESAIT-

agertzen zuten Euskadiko Selekzioaren aurrean. Hala ere, bi urte horietan federazioek ez dute urrats handirik eman. Urteko egitasmoetan bete-betean sartuta daude, eta bestelako lanetarako denborarik ez dute. «Egoera horren aurrean, ESAIT hor dago, elkarlanean elkarriketa mahai bat osatzeko», dio Uzkudunek.

Erantzukizuna eta legedia

Erantzukizunaren inguruan galdetzen zaionean, ESAITeko kideak argi du: «erantzukizuna ez da politikoena soilik, denek egin dezakegu zerbait; bai kirolariak, kirol federazioek, jendeak bere babesarekin, eta baita geuk ere». Bere hitzetan «herri honetan politikak dena markatzen du», baina kirol mailan bidea aurretik egiten

eko kideak, eta beste aro berri honen aurrean helburuak ere zehatzagoak izan behar dutela sinistuta daude.

Asmo horien berri emateko aldarrikapen jaia egingo dute abenduan, Euskadiko Selekzioak partida jokatzen duen garaia izaten baita. Oraindik leku ez dute zehaztu antolatzaileek. Sinadura eman duten kirolari handi asko izango dira, eta ESAITek sinatzera animatu nahi du. ◀

hasi gaitzekela dio, federazio nazionalak sortuz.

Bide horretan, Mikel Uzkudunek Europar Batasunak ematen duen aukera azpimarratu nahi du: «Europar sartu garenenez, Europak berak ematen du herrien arteko konfederazioak sortzeko aukera.

BABESA

«Gizartearen babesa dugu, kirolari eta kirol elkarte askorena ere bai, baina azken bultzada falta zaigu»

Europako legediak hori ez badu baimentzen ere, ez du inongo debekurik jartzen». Federazioa, konfederazioa edota elkarte. Izenak garrantzirik ez duela dio, hori bigarren mailako kontua izango da. Ondoren, «politika eremuan gauzak aurreratzen badira, guk lorpenak baditugu aurretiaz, beti ere, lagungarria izango zaigu», mintzatzen da Mikel Uzkudun.

Euskal Herriko Selekzioa

Mikel Uzkudunek onartzen du «izugarriko borroka» dutela Euskadiko eta Euskal Herriko Selekzioaren artean. Euskadiko selekzioak txapelketetan parte hartzen duen bezala, «gustatuko litzaiguke Nafarroako edo Iparraldeko triatleta bat egotea». Orduan, helburua zinez beteta ikusiko lukete.

ESAITek «erraza» ikusten du Euskal Herriko Selekzioa sortzea, Europak aukera hori ematen dutelako. «Euskal Herrian onartzen badugu, ofiziala ez, baina legala izango da Europako legediak onartzen duela». EAEko erakundeek babesa eskaintzen badute ere, askotan «itxurazko interesa» baino ez dela dio ESAITeko kideak «beldurra nagusi delako». Euskadiko Selekzioaren inguruan, gizartea alde ageri da, kirolari eta elkarte asko ere bai, baina azken bultzada falta da. ESAITek sasoi berri honen aurrean itxaropentsu egoteko arrazoiak baditu.

PILOTA ▶

Gaur eta bihar pilota partidak jokatuko dira herrian

Gipuzkoako Elkarteen Arteko Ligako neurketak izango dira guztiak

M. SAN SEBASTIAN

Gaur eta bihar pilota partidak izango dira Amezketan. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Elkarteen Arteko Liga Txapelketako norgehiagokak jokatuko dira, eta Zazpi-Iturri Amezketako taldeko pilotariak hainbat partida jokatuko dituzte.

Gaur, iluntzeko 20:00etan, bi partida jokatuko dira. Lehenengoa eskuz banakako nagusien mailako partida izango da; Zazpi-Iturri Ilunpe elkarteak pilotarien aurka jokatuko du. Ondoren, bigarrena jokatuko da, eskuz banakako nagusien 1. mailakoa. Zazpi-Iturri 2 taldeak Zazpi-Iturri 1-eko pilotarien aurka ariko da.

Bihar ere, ostirala, pilotariak tarte egingo diote Amezketan. Hiru partida jokatuko dira, eta lehena 21:00etan hasiko da. Eskuz banakako ariko dira kadeteak; Zazpi-Iturri taldekoak Bearzana taldeko pilotariak izango dituzte aurretiko. Ondoren, gaueko bigarren partida eskuz banakako gazteek jokatuko dute. Oraingoan Zazpi-Iturriko Txapain-eko pilotarien aurrean neurtuko dituzte indarrak. Azken partida, aldiz, eskuz banakako gazteen 1. mailako pilotariak jokatuko dute. Zazpi-Iturri 2 taldekoak Anaitasunako kirolariak izango dituzte aurrean.

Partida hauek guztiak Gipuzkoako Elkarteen arteko Liga Txapelketakoak dira, eta Larrunarri frontoian jokatuko dira.

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Tolosako Raku tabernak zerbitzaria behar du. **618 38 83 20.**

Muntatzaileak. Leitzako enpresa batek pladur muntatzaileak, edo ofizioa ikasteko gogoia duten langileak behar ditu. Lana Leitz eta inguruan izango da. **699 65 95 26.**

HERNANI OKINDEGIA

s u l a b e
ogi egin berriena

Telf.: 943 55 40 50 • HERNANI

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Amaluraren negarra

Une batez, denboran atzera eginez, Erdi Arora, adibidez, erlijioak garai hartako gizarte-aren inguruko pisua zuela etortzen zaigu burura. Gaur egun, Mendebaldeko herrietan, erlijioak ez du garai urrun haietan zuen indarraren erdirik; baina bai, ordea, komunikabideek. Hauek eragin handia dute gizartearen, eta hori agintariek ondo asko dakite. Honen adibidea, Abiadura Handiko Trena (AHT) edo Euskal Y-a aurrera ateratzeko, hedabideetan, «tren honek kalteak baino gehiago onurak ekarriko lituzkeela», behin eta berriz errepikatzea da. Azkenik, AHT egin beharreko proiektu bat dela sinestaraziz.

AHT «jasangarria» dela diote, errepideetan gainezka dauken kamioi eta auto gidariak «trenera» bideratuko liratekeelako, eta honek kutsadura gutxitu, energia aurreztu, auto pilaketak sahistu eta istripuak gutxituko lituzkeelako.

2005eko irailean argitaraturiko *Investigacion y Ciencia* aldizkariak dioenez, William Shakespearek (1564-1616) arnasten zuen aireak milioi bakoitzeko 80 karbono dioxido (CO₂) molekula zituen. Egun, gure biriketara sartzen den aireak, milioi bakoitzeko 380 CO₂ molekula ditu, eta proportzio hau gorantz doa. Honek atmosferaren berotzea dakar, ondorioetariko bat itsasoko uren tenperatura igoera izanik, azkenik itsasmailak gora egingez. Gizakia munduarekin esperimentatzen ari da.

Egia da gure errepideetan geroz eta motordun ibilgailu gehiago igarotzen direla, airea kutsatuz. Erregai fosilen erreketa CO₂ kantitate handiak isurtzen ditu aiera: auto batek urtean 10 litro erregai erretzen baditu, 1.300 litro gasolina erosi beharko lirateke. Erregai hori erretzean, atmosferara 3 tona CO₂ botatzen dira; aldiz, zentral termiko berri eta handi batek, 1.000 megawatt sortzen dituenak, 6 milioi tona CO₂ (2 milioi autoek botako luketena) isurtzen ditu (*Investiga-*

ción y Ciencia, 2005eko iraila). Hemen gogoan izan behar dugu Boroako zentral termiko berria.

Bestetik, 2007 eta 2019rako egin nahi diren errepideak kontuan izan behar ditugu: AP-1 (Eibar-Gasteiz), Beasain-Durango, A-8 autobideari hirugarren karrila gehitzea (Ventas de Irun eta Eibar artean; Bideguren arabera, eguneko 35.000 motordun ibilgailu igarotzen baitira eta kopuruak gora egingo du)...

Beraz, zergatik ireki nahi dute Boroako zentral termikoa? Eta hainbeste errepide berri egin? Ez al da ba, AHT-a egitearen helburuetariko bat CO₂ gutxitzea?

AHTri esker, energia aurretuko omen dugu. Garbi eduki behar dugu, Euskal Y-a ez dela tren normal bat, hauek baino sei bider energia gehiago kontsumitzen baitu. Alemanian, Abiadura Handiko Trenak bi zentral nuklearen bidez lorturiko energia elektrikoarekin ibiltzen dira (www.copaltav.org/informeestado). Zentral termikoez sorturiko energia

elektrikoak ere, zer esana izan dezake AHT-arengan.

Abiadura handiko «tren» honek ekonomiaren garapenari eutsi eta aberastasun kapitala ekarriko duela diote. Jakina da egungo gizartea geroz eta kontsumitzaileagoa dela eta, ondorioz, bere beharrak geroz eta handiagoak. Honen adibide garbiak dira: AHT, ireki nahi diren errausketa-plantak, Pasaia Superportua, Boroako zentral termikoa, Super-sur... Baina oso kontuan eduki behar dugu biosferaren mugak mugiezina direla; Luraren gaitasuna, geroz eta gehiago garen gizakiok mantentzeko, azken mugaraino heltzen ari dela. Aztarna ekologikoa (lurralde-kontsumoak naturaren eragina) geroz eta handiagoa dela. Beraz, egungo gizartea ez doa bide zuzenetik.

AHTak paisaiari kalte handiak eragingo lizkioke: ikaragarriko lur mugimenduak, 194 kilometrotatik 99 tunel dira, 17 bidezubi, uraren maila freatikoa aldarazi... Ekosistemak suntsitzean eta espezieak desagertaraztean, gure plane-

tak eskaini zezakeen ondare handienetariko bat suntsitzen dugu, azkenik gure espeziearen bizitza arriskuan jarritz. Gizadia ez zen mundu honetara aingeru gisan jaitsi. Ez gara Lurra kolonizatu genuen izaki estralurtarrak. Planeta honetan, beste hainbat eta hainbat espezieekin batera eboluzionatu genuen. Eta hemen gaude, mirari organiko bat bezala, beste bizidunekin loturik, ingurumenaren baldintza berezietara moldatuak baikaude.

Ez dugu inoiz ahaztu behar ingurumena, gure sorlekua, sehaska, haurtzaindegia, eskola eta gure bizileku bakarra izaten jarraitzen duela eta benetan zaindu behar dugula, ezjakintasun eta arduragabekeri handiarekin erabiltzen baitugu, egungo ekonomia kapitalista aseeginari eusteko.

Urriaren 22an Bilbon, 17:30ean, Jesusen Bihotzen plazatik abiatuta egingo den manifestazioan parte hartzeko deia egiten dizuegu.

AINHOA JAUREGI

(AHT GEDITU! ELKARLANEKO

KIDEA) ▶ IRURUA

IBARRA ▶ GIZARTEA

Hitzarmena sinatu dute Udalak eta Uzturpek

Lankidetzaz hizarmenak elkarlanaren alderdi guztiak biltzen ditu; hartu-emanak idatziz jasotzea izango du helburu



Jokin Zugasti Uzturpe ikastolako zuzendaria eta Chelo Romeo Ibarroko alkatea, hizarmen ekitaldian. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarroko Udalak eta Uzturpe ikastolak lankidetzaz hitzarmena sinatu berri dute; beraz, aurrerantzean finkatuagoak izango dituzte bata bestearekiko

hartu-emanak. Pasa den irailean izan zen sinadura ekitaldia eta bertan izan ziren Ibarroko alkate Consuelo Romeo Aya eta Uzturpe ikastolako zuzendari Jokin Zugasti, lekuko gisa Tomas Ugaldere Euskara

eta Hezkuntza teknikaria izan zen.

Hitzarmena, beraz, egun gaurtik dago, baina horrek ez du esan nahi Udalak eta Uzturpe ikastolak lankidetzaz akordioa izan ez dutenik. Izan ere, hainbat legegintzalditan Ibarroko udalbatzek beti idatziz jaso ez diren akordioak egin dituzte Uzturpe ikastolarekin. Horrela, elkarlan hori gaur egun «ezinbestekoa» dela Ibarroko bakarra den hezkuntza proiektuaren bideragarritasuna bermatzeko adierazi dute. Eta, hori dela eta, «honi guztia-ri konponbidea emateko» sinatu dute hitzarmena Udalak eta ikastolak.

Lankidetzaz hitzarmenak elkarlanaren alderdi guztiak biltzen ditu: finantziarioa, azpiegituren lagapena... Eta, hain zuzen ere, orain arte idatziz jasota ez zeuden hartu-emanak idatziz jasotzea izango du helburu, besteak beste.

IBARRA ▶ KIROLAK

Karlitz taldea bikain Europako Txapelketan

Amateur mailan hirugarren eta Master mailan bederatzigarren sailkatu dira



Aitor Ezkerra, Luis Oruezabal eta Koldo Llorente. I. TERRADILLOS

I. TERRADILLOS

Kolonian (Alemania) jokatu berri dute Europa mailako Dardo Txapelketa Ibarroko Karlitz garagardotegiko taldeko jokalariek, eta onenen artean aritu ondoren sariekin bueltatu dira. Batetik, Luis Oruezabalek 3. postua lortu zuen Amateur kategorian baina, Cricket jokoa; eta, bestetik, maila bat gorago, Master-ean, Koldo Llorentek eta Luis Oruezabalek bikoteka 9.

postua lortu zuten. Horrela, Euskal Herriko nahiz Espainiako lehenengo sailkatzea lortu zuten. Taldea ere hartu zuten parte, baina ezin izan zituzten binaka eta banaka lortutako emaitza onak berdindu. Aitor Ezkerra Karlitz taldeko ordezkariak nahiz Luis Oruezabalek eta Koldo Llorentek txapelketako maila altua azpimarratu dute, eta oso gustura bueltatu direla jasotako sariekin adierazi diote HITZARI.

LEITZA ▶ HIRIGINTZA

Kooperatibakoentzat irekita zerga bereziak ordaintzeko epea

Saneamendu eta zolaketa lanengatik, balio katastralen arabera kopurua dute ordaindu beharrekoa auzokideek



Atzo arratsaldean topografoak ari ziren lanean auzoan, zoladuraren nondik norakoak markatuz. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Patxi Arrazolan, Kooperatiba modura ezagunago den auzoko auzokideek urriaren bukarrera arteko epea dute bertan egin dituzten «lanengatik zerga bereziak ordaintzeko». Halaxe dio argitaratuta dagoen udal bandoak.

Jakina da auzo horretan saneamendu eta zolaketa lanak

egiten ari direla lehengo urteko irailaz geroztik. Saneamendu lanak bukatuta dituzte; orain, zolaketarekin ari dira. Gauzak horrela, Udala bertako auzokideei, «etxebizitza, ganbara edota bajearen baten jabe, beti ere», zehaztu zuten, zerga berezia kobratzeko lanetan ari da, «lanen kostuaren zati bat, auzokideek ordaintzeko» helburuz. Kasu ho-

netan, eta iazko abenduan hartutako udal erabaki baten arabera, eta saneamendu, nahiz zolaketa lanei dagokieliarik, «aurrekontuari diru laguntzak kenduta, kostu errealearen %12 ordaindu beharko dute onuradunek». Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako datuen arabera, hiri instalazioen sareak berritzeari dagokionez, herriak 292.366,21 euro or-

daindu behar ditu; zolaketan, 145.335,23 euro. Bi balio hauen %12 dute jarri beharra onuradunek, hots, 52.524,18 euro. Aurrekontu osoa, hasierakoa, 978.005,10 eurokoa izan zen.

Aipatzekoa da onuradun bakoitzak ordaindu beharreko kopurua zehazteko garaian, hauek lanen eragina jasan duten eremuan dituzten ondasunentzat «katastroan ezarritako balioen arabera» egitea ezarritako dagoela, lehen aitatutako akordioa aintzat hartuz. Eta halaxe baieztatu diote HITZARI udaletxean bertan.

Bi zatitan

Edozein moduz, orain kuota berezi horren erdia jasoko dute, «aurrekontuen datuetan oinarrituta»; bigarren zatia lanak bukatzen dituztenean jasotzekoak dira, «ordurako kostu errealek ezagun izanen dira, eta aldea zehaztuta egonen baita», arrazoituz.

«Zerbitzu publiko berriak ezartzeak edota Obra Publiko berriak egiteak inguruko ondasunei balio handitzea eragiten dienean, onuradunei zerga bereziak ezartzea» zilegia dela dio Nafarroako Leku Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak; bestalde, zerga berezi delako hauen bidez, lanen «kostu errealearen %90 arterainoko errekaudazioa» egin daitekeela ere zehazten du. Erabaki hau hartzea, alegia, zerga ezartzea edo ez, eta zer portzentaiarekin egin, politikarien esku uzten du, egitekotan, beti ere baldintzak ezarrita daudelarik.

Bere garaian, herriko gainerrako auzoetan horrelako moduko lanak egin zituztenean, orduko onuradunek ere zerga bereziak ordaindu behar izan zituzten.

ARESO ▶



Mikel Olazabal jokoa. J. A.

Olazabalek Errotxapeako txapela ere irabazi du

Irabazitakoa, kasu honetan, binakakoa da; DV sariketan bihar jokatuko du lehena

J. ASTIBIA

Mikel Olazabalek beste txapel bat erantsi dio aurtengo sarien zerrendari. Oraingoan Errotxapeako Eskuz Binakakoa.

Lehengo ostiralean jokatu zuten finala aresoarrak, atzeko laguntzailea Azanza doneztebearra zuela, eta ikusgarritzako partidua jokatu, 22 eta 20 irabazi zieten Lazkoz eta Iruretarri.

Txapelketa batetik bestera, bihar bertan jokatuko du aurtengo DV Torneoko lehen partidua ere Olazabalek, kasu honetan Jauregi bikote duela. Seguran, 22:00etatik aurrera izanen da hori.

hitza

lagunen
txokoa

- ▶ HITZaren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

- ▶ Txartela HITZaren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaia k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegietako kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZaren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!